

# **ABIAN PROZESUA:**

## **BIGARREN FASERAKO ARGIPENAK**

### **1. TXOSTENA**

#### **1.1. Bloke nagusiak:**

- Ziklo aldaketa eta azken urteotako norabideaz balantzea.
- Non gaude? Abagunearen gutxieneko azterketa.
- Ezker Abertzalearen eginkizuna: proiektu politikoa.
- Nora eta nola goaz, estrategiaren gaurkotzea:
  - Hautabide independentista
  - Eskaintza independentista birsortu
  - Herrigintza ardatz
  - Proposamen taktikoak
  - Gatazkaren ondorioak, konponbidearen lerroa
- Antolaketa Egitura.

***Txostena herri eta auzoetan banatuko da. Abianeko webgunean eskuragarri egongo da. Antolakundeen egoitzetan egongo dira. Zuen email helbidea badugu emailaz ere bideratuko zaizue.***

#### **1.2. Eranskinak:**

- A eranskina: Egun bizi dugun Euskal Herriaz
- B eranskina: Ezker Abertzalearen erradiografia
- D eranskina: Abian prozesuaren informe politikoa (ekarpen guztien laburpena)
- E eranskina: Glosarioa

***Eranskinak webgunean eskuragarri egongo dira. Antolakundeen egoitzetan egongo dira. Zuen email helbidea badugu emailaz ere bideratuko zaizkizue.***

### **2. EZAUGARRITZEA**

- Prozesuaren fase erabakigarria da: Fase hau izango da prozesuaren benetako eztabaida, herri eta auzoetan ahalik eta kide gehienen parte-hartzearekin erabakiak kolektiboki hartzea eta kidegoaren binkulazioa bilatzea izanik helburu nagusiak.
- Eztabaidarako txostena modu kolektiboan entzute fasean jasotakoaren arabera egin da.
- Abian prozesua ez da prozesu kongresual bat, orube estrategikoa ezartzeko Ezker Abertzalearen prozesua baizik. Hau honela, amaigabeko emendakin prozesu bat baino ekarpen, hobekuntza eta desadostasunak jasotzeko ahalik eta metodo egoki eta eraginkorrena proposatzen da. Besteak beste, Abian, azken batean, pasabide bat baita, katalizatzaile bat, gerora beste beste eztabaida zehatzago batzuetan eta antolakunde

bakoitzean jarraitu behar duena, eta azken buruan praktika politikoan isla izango duena.

- Txosten honek irudikatzen duen **norabide orokorra berresten dugun ala ez erabaki behar** dugu. Beraz, lehen batzarrean **tesi orokorrarekiko onarpen politikoa/atxikimendua** bozketaren bidez jasoko da.
- Azpi-tesiekiko desadostasuna badago, **proposamen alternatiboak** jasoko dira bigarren batzarrean.
- Babes minimoa lortzen duten azpi-tesien proposamen alternatiboak hirugarren batzarretan bozkatuko dira.
- **Herri batzarrak dira erabakigune bakarrak.** Prozesu osoan pertsona bat bozka bat izanik irizpidea. Euskal Preso eta lheslariak bozka delegatua izango dute.
- Prozesuaren izaera demokratikoan sakonduz gardentasunez jokatu da. Besteak beste, egingo diren bozketen emaitzak prozesuan parte hartu dutenen esku egongo dira, horretarako bitartekoak ezarriz.
- Zuzenketen kudeaketarako lan-batzorde bat izendatu da. Talde honen esku geratuko da ekarpenen balorazioa eta sintesia egin eta Batzorde Orokorrari onartzeko aurkeztea. Ondoren, herrietako batzarretan bozkatuak izan daitezten.

### 3. EZTABAIDA

*Hiru bote aurreikusten dira:*

#### Otsailak 27-Martxoak 5 artean (biak barne)

- Balantze eta testuinguruaren egoera partekatu eta horien inguruan eztabaidatu.
- Definizio estrategikoaren eta txostenaren baliagarritasun politikoa eta tesi orokorra testatu (bozketa bidez).
- Tesi nagusiaren garapen puntu nagusiak (azpi-tesiak) partekatu.

#### Martxoak 12-19 artean (biak barne)

- Bost azpi-tesien zehaztapenen eta balizko emendakinen inguruan eztabaidatu eta etorkizuneko strategiaren garapen bat definitu.

#### Apirilak 16

- Azpi-tesien balizko emendakinen eztabaida eta bozketa erabakitzailea.

**Hirugarren batzar horietatik ateratzen diren emaitzekin txosten definitiboa osatuko da. Txosten hori publiko egingo da ahal bezain pronto.**

**Batzarren datak zuen herri edo auzoetan zehaztuz joango dira hurrengo egun eta auzoetan. Adi deialdiei!!**

**Txostenaren banaketa eta batzarretarako gonbidapenak ahalik eta zabalenen egiten saiatuko gara. Baina zure esku ere badago, hau jasotzearekin batera zure inguruko kide eta lagunak informatuz eta prozesuan parte hartzera gonbidatuz... zurekin kontaktzen dugu, guztion artean egin dezagun abiatutako bidea!!**